
VIII. EUSKAL HERRIKO FRISOI TXAPELKETA

(2016.12.01)

Aurtengoan ere Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu zen Tolosako Ferialekuan.

VIII. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu dutenak oso balorazio positiboa egiten dute. Alde batetik, lehiatu ziren animaliak genetika handikoak ziren, eta bestetik, esne sektorean lana egiten dugunon topagune bilakatu zen.

Jende udari bildu ginen Tolosako Feria Lekuan eta giroa ezin hobea izan zen. Goi- mailako ganadua ikusteko aukera egon zen goizean zehar eta baita sektorean lana egiten duten enpresa desberdnien stand-ak.

Maila handiko animaliak lehiatu ziren eta Nafarroako KATTABURU ustialekuko DELTA IPARRALDE behia izan zen behien txapeldunen txapenduna.

Sariak ematen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta eta Elikagaien Politikako Zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Land Garapeneko eta Nekazaritzako Zuzendaria, Tolosako Alkatea eta Aberekinako Kudeatzailea egon ziren.

Eguna borobiltzeko biga bat zozketatu zen, (Gipuzkoako Iturtasarobe baserrira joan zen) eta bazkari bat antolatu zen babesle, laguntzaile, ganaduzale eta antolatzaileentzako.

sariak.16